

Edorta Jimenezek irabazi du Julene Azpeltia Ipuin lehiaketa

■ Iñaki Perez

Garmendia izan da bigarren eta Imanol Azkue zumaiair onena

Erredakzioa / Donostia

EDORTA JIMENEZ izan da Zumalako Julene Azpeltia Ipuin lehiaketako aurteko ekitaldiaren irabazle. Aktibitate datarren berba berria Ipuinari esker. Bigarren saria Iñaki Perez Garmendia elgo-bartarrentzat izan da. Lo dago mesté lanarengatik, eta zumaia onenarentzako saria, berriz, Imanol Azkue Ibarbiak bereganatu du. Galduta pena lanari esker.

Mariasun Landa, Nerea Auzmendi, Begoña Muruaga eta Joxean Agirrek osatutako epalmahaiak aho batez hartu du Jimenezen lana saritzeko erabakia. Edorta Jimenezek 325.000 pezeta (13.000 libera inguru) eskuratuko ditu sariarekin batera, Iñaki Perez Garmendiak 150.000 eta Imanol Azkue Ibarbiak 125.000.

Sari banaketa urtariraren 12an egingo dute Zumalako Foronda kultur etxean, iluntzeko 19.00etan. X

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIKO HAUR DOKUMENTAZIO GUNEAK KATALOGOA ARGITARATU DU

Haur literaturaren altxorra

■ Donostiako Kultur Udal Patronatuak argitaratu berri du 'Irakurketa eta haur literatura' liburua. Donostiako Udal Liburutegiko Haur Liburuaren Dokumentazio Gunearen erreferentzia obren katalogoa da aipatu idazlana.


Joxi Ubeda / Donostia

IRAGAN urtean zabaldu zituen atek Donostiako Udal Liburutegiko Haur Sallaren egoitzak. Parte Zaharrean dago, Udal Liburutegitik hurbil.

Egun 17.000 idazlan inguru gordetzen ditu Udal Liburutegiak, 400 bideo eta 100 kaset, eta 1.667 bazkide bildu —hauek 245 bazkide 5 urtetik beherako haurrak dira—. Irailcan, urrian eta azaroan, guztira 9.663 liburu eta ikus-entzunezko eskatu zituzten bazkideek —egunean 154 batez beste—, eta irakurketa gelan 3.849 erabili ziren —50 egunean—.

Udal Liburutegiak haurrei zuzenduriko egoitzan bi sailetan banatuta daude liburuak. Haurrei zuzenduriko sailcan aurki daitezke ezagutza liburuak, imajinario liburuak, aldizkariak, egunkariak eta ikus-entzunezkoak.

Helduek, aldiz, haur liburuaren bilduma historikoa —XIX. men-



Concha Chaos Donostiako Udal Liburutegiko Haurrei zuzenduriko eta Susana Soto Udal Liburutegiko zuzenduriko atze sarrerak zuten katalogoa.

EURNE KOCH

Susana Soto: «Ikerlariak, pedagogok eta irakasleek ondare modernoa ere baliu dezakete haur literatura eta irakurketa errazago ulertzeko»

detik 60ko hamarkadara bitarteko liburuak— erabili dezakete, dokumentu artxiboa —egile, ilustratzaile, haur eta ikasle berritzaile eta beste hainbat arloko buruzko doktrinak—; haur literaturari buruzko erreferentzia obrak eta liburu monografiak irakur ditzakete; haur liburutegintza jorratzen duten aldizkariak; eta zenbait bibliografia, irakurketa gida, katalogo ere baliu ditzakete.

Haurrek denbora-pasa gisa jardun dezakete. Erakuntzearen behiko solairuan haur liburutegia dago, ediseinu modernoz egina, baliabide bibliografikoak eta ikus-entzunezkoak daude, eta haurrak denbora-pasa moduan jardun dezake, dio Susana Sotok, Donostiako Udal Liburutegiko zuzendaria.

Duela urte eta erdi zabaldu zenetik haurrek beterik egon da. «Parteharte, asistentzia eta bazkide kopuruari dagokionez, emaitzak oso onak izan dira», dio Sotok.

Bigarren solairuan Haurteko dago. Bost urtera arteko haurrei zuzenduriko liburuak eta materiala biltzen dira hor. «Nahiz eta hizkiak irakurtzeko gai ez izan», haurrek marrazkiak ikus ditzakete, eta badira ere ukimena lantzeko prestatutako liburuak. Hainbat jardueratan psikologo batek hartzen du parte, gurasok hobeto ulertu dezaten haurrek li-

buruak nola ikusi eta interpretatzen dituzten.

Hirugarren solairuan, azkenik, haur liburuaren dokumentazio zentroa dago. Udal Liburutegiak berak gordetako ondarea baltutuz eta Concha Chaos-ek haur liburu zaharrak biltzeko egin duen lanari esker, haur liburutegiak idazlan zaharren ondarea jasotzen duen bilduma handia dauka. Susana Soto Donostiako Udal Liburutegiko zuzendariaren hitzetan.

Horrela, ondare hori baliatuz zentroa sortu zen, «modu horretan haur liburu ikerlariaren laguntza izan zedin, haur liburutegintza inguruen historian zehar argitaratutako guztia erabili baitzezakete, eta ikerlariak, pedagogok eta irakasleek ondare modernoa ere baliu dezakete haur literatura eta irakurketa errazago ulertzeko».

Haur liburutegiak ekitaldi ugari antolatu ohi ditu urtean zehar, «kasik egunero izaten da haurrei zuzenduriko ekitaldiaren bat —zehaztu digu Susana Sotok— ipuin ordua ez bada, haur sorkuntza tailerra izaten da, irakasleek bisitak egiten dituzte, liburu aurkezpenak...». Dokumentazio zentro gisa, ikastaroak, hitzaldiak eta erakusketak ere antolatu ohi ditu, eta Egunerrietan egitaraua bereziki izango du zentroak, filme emanaldi, magia saio, lehiaketa eta beste hainbat ekitaldi osaturik. Pinocchio ere

izango da Gabonetan zehar, haurren opari-eskakizunak jasotzeko.

Katalogoa, ezinbesteko tresna. «Ondare» abiapuntu-tza hartuta, ondare modernoa batik bat, argitaratu dute katalogoa. Concha Chaos Donostiako Udal Liburutegiko Haur Sallako zuzendaria azaldu duzigu katalogoaren inguruko zehetasunak. Zentroko gordetzen duen ondareari buruzko informazio eskakizun ugari jasotzen, eta guk ere pentsatu genuen zein izan zitekeen haur literaturaren diharduten ikerlari, irakasle eta nostalgikoak laguntzeko modua.

Katalogoak zentroaren erreferentzia ondare jasotzen du. «Dena den, ondareak liburu berriak jasotzen ditu etengabe, eta ondorioz badira katalogoan ez dauden hainbat liburu. Katalogoa hainbat gai jasotzen duten hamar ataletan banatuta dago. Liburuak-Medietakak, Irakurketa-taren sustapena, Kultur sustapena, Ilustrazioa-Ilustratzaileak, Komikak, Lengoaia-Didaktika, Ipuina-Kritika eta Interpretazioa, Haur literatura-Historia, Haur literatura-Aldizkari argitalpenak eta Antologiak-Liburu bereziak dira hamar atalen izenburuak.

Antologiak eta liburu ospe-tsuek biltzen dituzten azken ata-lean, jatorrizko bertsoak erres-petatu dituzten erreferentziak aurki daitezke. «Batuzetan, haurrei eskaintzen zaizkien bertsoek aldatuta handiak izaten dituzte, eta katalogoan dauden bertsoak jatorrizko hizkuntzatik zuzenean itzuli izan dira. Concha Chaos haur liburutegiko zuzendariaren hitzetan. X



aizu!ren harpidedun izan nahi dut!

Izen Abizenak.....
Helbidea.....Tnoa.....
Herria.....Herrialdea.....P.K.....
Bankua.....
Sukurtsal zk.....Kontu zk.....

Urtebeteko harpideduta: Hego Euskal Herria eta Estatuak: 6.500 pta. Ipar Euskal Herria eta atzerria: 11.500 pta.

Diputazio kalea, 3 - 1. 48009 Bilbo.
Tnoa. 94-423 15 52